EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

Trafiko Zuzendaritzako TAIZAko zehapen-espedienteak izapidetzeko laguntza

Baldintza Teknikoen Plegua

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 21a

Donostia-San Sebastián kalea 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 01 87 44 – Faxa: 945 01 87 50

AURKIBIDEA

1 Kontratuaren xedea.

2 Egin beharreko lanak.

2.1 Egin beharreko zereginak.

2.2 Kalkulatutako lan-kargak.

3 Zerbitzua antolatzea eta ematea.

3.1 Lan-metodologia.

3.2 Baliabide materialak.

3.3 Giza baliabideak: kontratistaren erantzukizunak.

3.4 Prestazioak gauzatzeko lekua.

3.5 Kontratuaren xede diren zereginak garatzeko beharrezkoak diren zehaztapenak.

3.6 Kontratua gainbegiratzea.

3.7 Erregistroa eta kontrola.

I. eranskina: Aleko prezioak.

II. eranskina: Informazio-sistemei buruzko segurtasun-arauak.

1. Kontratuaren xedea.

Kontratu honen xedea da ibilgailuaren matrikula identifikatzea eta matrikularen datu hori jasotzen duten irudiak baliozkotzea ahalbidetzen duten bitarteko automatizatuen bidez hartutako arau-hausteen ondoriozko dokumentazioa digitalizatzeko eta datuak grabatzeko lanak egitea. Enpresa kontratista arduratuko da zerbitzua osoki emateaz, eta, horretarako, zuzendaritza-, antolaketa- eta ekimen-ahalmenak hartuko ditu kontratua beteko dela bermatzeko behar diren neurriak hartzeko.

2. Egin beharreko lanak.

2.1 Egin beharreko zereginak.

Bitarteko automatizatuen bidez atzemandako arau-hausteen salaketa-proposamenetan eta aurrekoetatik eratorritako zehapen-espedienteetan honako zereginak egin beharko ditu kontratistak:

a. Alderatzea irudian bistaratzen diren ibilgailuaren marka eta modeloaren irudiak Ibilgailuen Erregistroak ematen dituen datuekin.

b. Argazkian ageri den ibilgailuaren matrikula eta irakurketa automatikoko OCR irakurgailuak egiten duen matrikula-irakurketa alderatzea.

c. Argazkiaren goiburuan agertzen diren salaketa-datuak aplikazioak jasotzen dituenekin alderatzea.

d. Aurreko zereginen ondorioz, irudia baliozkotzea ala baztertzea. Baliozkotzea da argazkia trafikoko zehapen-prozeduraren aplikaziora bidaltzea. Baztertzea egiteko, goitibeherako menu batean agertzen diren baztertzeko arrazoietako bat hautatu behar da.

e. Agiri guztiak, sarrerakoak zein irteerakoak, digitalizatzea eta, ondorioz, agiri-kudeatzailean txertatzea, kasuan kasuko dokumentu-mota zehatza adierazita.

f. Espediente-zenbakia duten karpetatxoak irekitzea, kanpotik sarrera izan duten dokumentuen nahiz Administrazioak sortutakoena.

g. Identifikatutako errentarien edo gidarien datuak alderatzea Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren erregistroetan agertzen diren datuekin, erregistro horretan kasu bakoitzean dagokion identifikazio-agiriaren zenbakiarekin datuak bilatu ondoren.

h. Ibilgailuaren titularrarren, errentariaren edo gidariaren helbide-datuak bilatzea

Ibilgailuen eta Gidarien Erregistroetan, eta egoitza-datuak bi erregistroetan bat datozen egiaztatzea, hala badagokio.

i. Gidarien eta errentarien identifikazio-datuak grabatzea *Host* aplikazioan. Grabatu beharreko datuak hauek dira: izena, abizenak, identifikazio-agiria (NAN, AIZ, IFZ, etab.) eta helbidea.

j. Karpetatxoak espediente-zenbakiaren arabera artxibatzea.

k. Gainbegiraleak hiru hilean behin irudiak baliozkotzeko prozeduraren kalitatea kontrolatzea (ausaz), eta zeregin guztiak egin direla ziurtatzea, baliozkotzea behar bezala egiteko. Ondoren, kalitate-kontrolaren emaitzak jasotzen dituen txostena bidaliko zaio Eusko Jaurlaritzari, erabilitako metodoa eta lortutako emaitzak adierazita.

l. Gainbegiraleak hiru hilean behin egiten duen kalitate-kontrola, zehapen-prozeduraren aplikazioan identifikazio-datuen grabazioa behar bezala egiten dela egiaztatzeko (ausaz). Ondoren, kalitate-kontrolaren emaitzak jasotzen dituen txostena bidaliko zaio Eusko Jaurlaritzari, erabilitako metodoa eta lortutako emaitzak adierazita.

m. Proiektuaren egoeraren irudikapen grafikoari buruzko hileroko txostenak, euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuak, Gobernu Kontseiluak 2021eko apirilaren 13an[1] onartutako hizkuntza-irizpideak betez.

Nolanahi ere, e., f. eta j. ataletako zereginak ez dira kontratu honen xede izango, kontratua indarrean dagoen bitartean Trafiko Zuzendaritzak bere gain hartzen baditu.

Arestiko zerrendako zereginak fakturazio-ondorioetarako honela sailkatzen dira:

1.1.a: *a, b, c, d, g, h, i, k, l eta m.*

1.1.b: *e, f eta j .*

1.2: *e, f eta j .*

2: *a, b, c, d eta m.*

2.2. Aurreikusitako lan-kargak.

Azken urteetan Trafikoko Arau-hausteak Izapidetzeko Zentro Automatizatuak izapidetutako salaketak ikusita, 2022-2024 aldian urtero izapidetu beharreko espediente-kopuruari buruzko aurreikuspenak urteko 190.000 espediente ingurukoak izango dira. Espedienterik sortzen ez duten irudien kopuruari buruzko aurreikuspenei dagokienez, baztertu egiten direlako, baina baztertu aurretik ikusi egin behar direlako, urtean 40.000

[1]Informazio osoa: https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/elebitasuna-eta-hizkuntza-irizpideak/

izango lirateke 2022-2024 aldian.

Espedienteen bolumen horrek urtean % 5eko aldaketa izan dezake gutxi gorabehera, eta aldaketa hori handiagoa da oporraldiaren osteko aldietan, hau da, Aste Santuaren ondoren, Gabonetan eta udan (ekainetik irailera, biak barne), aldi horietan errepideko ibilgailuen intentsitatea handiagoa baita. Nolanahi ere, emandako aurreikuspenak ez dira inolaz ere lotesleak izango eta kontratistaren betebeharra izango da aldian aldiro dagoen lan-kargara moldatzea. Halaber, Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango lan-kargak handiagoak edo txikiagoak badira.

Kontratistak lana antolatzeko eredua proposatu beharko du, une oro bermatu ahal izateko proiektua bere osotasunean eta sortzen diren espedienteen bolumenera egokituta. Antolamendu-eredu hori, aurkeztutako memorian jasota ez dagoen guztian, nahitaez bete beharrekoa izango da, eta kontratistak libreki aukeratuko du, betiere kontratuaren xede diren zeregin guztiak behar bezala eta epearen barruan betetzeko aukera ematen badu.

3. Zerbitzua antolatzea eta ematea.

3.1. Lan-metodologia.

Baliozkotu ala baztertu beharreko irudiak enpresa kontratistaren eskura jarriko dira *TAIZA* aplikaziora sarbidea emanez. Horretarako, kontratistak eman beharreko kontratuari esleitutako lantaldearen zerrenda erabiliko da aipatu aplikaziora sartzeko erabiltzailea emateko.

Bestetik, digitalizatu beharreko agiriak eta grabatu beharreko identifikazioak Trafikoko Arau-hausteak Izapidetzeko Zentro Automatizatuaren bulegoan dauden karpetetan utziko zaizkio kontratistari; kontratistaren lantaldeak jasoko ditu karpeta horiek eta karpeta bakoitzeko agiriei eman beharreko tratamendua emango die. Ezein zalantza izanez gero, bulegoko funtzionarioei galdetuko diete, beti ere horretarako ezartzen den moduari jarraiki.

3.2. Baliabide materialak.

Enpresa kontratistak zerbitzua behar bezala emateko behar diren baliabide material guztiak jarri beharko ditu. Era berean, enpresak langileak babesteko bitartekoak, metodoak eta elementuak izan beharko ditu, eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan indarrean dagoen legeria bete beharko du.

Enpresa kontratistak baliabide hauek eman beharko dizkie bere langileei: ordenagailua eta kudeaketa propiorako beharrezko programak (auditoriak, presentzia-kontrola, etab.), bai

eta bulegoko material suntsikorra ere (ohar-libretak, idazteko materiala, etab.). Aipatutako baliabideak enpresa kontratistak aurkeztu, mantendu eta ordezkatuko ditu.

Kontratua gauzatzeko behar diren bitarteko informatikoak administrazio esleitzaileak emango ditu, saileko sarearen espezialitatea eta segurtasun informatikoko beharrak kontuan hartuta, hori guztia bat etorriz NS01-Arauarekin, zeinak Segurtasun Sailean informazio-ekipoak eta -sistemak erabiltzeko araudi orokorra ezartzen baitu. Araudi hori Informazioaren Segurtasun eta Pribatutasuneko Batzorde Gorenak onartu zuen, Segurtasun Saileko Informazio eta Segurtasun Politikako sailburuaren 2019ko urtarrilaren 23ko Agindua garatuz. Ondorioz, altzariak (mahaiak, aulkiak, etab.) Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoak izango dira, baita lanpostua osatzen duten hardware- eta software-ekipamenduak ere, lehen aipatutako ekipo informatikoak manipulatzea saihesteko, eta hori guztia kontratuak dirauen bitartean. Hori guztia Hirugarrenen ekipoak Segurtasun Sailaren sarera konektatzeko debekuari buruzko Txostenean jasotzen da, Telekomunikazioak eta Sistema Informatikoak Kudeatzeko Zuzendaritzak emana, Gobernu Kontseiluak 2014ko apirilaren 29an onartutako Zerbitzuen kontratazioko jardunbide egokiei buruzko jarraibideak betetzeko.

3.3. Giza baliabideak: kontratistaren erantzukizunak.

Enpresa kontratistak kontratuaren xede diren zereginak behar bezala eta dagokion epean gauzatzeko behar diren langile guztiak kontratatu eta atxiki beharko ditu; aurkeztutako memorian adierazitako kontratazioak nahitaez egin beharko ditu, baldintza-agiri honen 3.5 atalean jasotako zehaztapenekin. Kontratistak zainduko du kontratatutako langileek kontratuaren xede diren zereginetarako beharrezko gaitasuna dutela.

Enpresa kontratistak zerbitzu hori ematen duten langileen gaineko eskubide eta betebehar guztiak izango ditu, eta, gainera, indarreko araudian aurreikusitako laneko, gizarte-segurantzako eta segurtasun eta osasuneko betebehar guztiak bete beharko ditu. Ondorioz, langile horiek ez dute inolako loturarik edo eskubiderik izango Administrazioarekiko, eta Administrazioa ez da kontratistaren betebeharren erantzule izango. Enpresa kontratista behartuta egongo da enplegatzen dituen langile guztiak -enpresakoak zein kanpokoak- Gizarte Segurantzan afiliatuta egotera, eta, era berean, indarrean dagoen lan-arloko legeria guztia bete beharko du langile horiekin.

Administrazioak langileak aldatzeko eskatu ahal izango dio enpresa kontratistari, baldin eta uste badu ez direla behar bezala egokitzen lan-baldintzetara, edo ez dituela betetzen lantokian indarrean dauden arauak, edo agindutako zerbitzua ematean behin eta berriz eta argi eta garbi huts egin dutelako. Zerbitzuak emateak sortzen dituen gastuak (dietak, erregaia, bidesariak, etab.) enpresa kontratistaren kontura izango dira. Bera izango da

bere langileek zuzenean, zabarkeriaz edo doloz zerbitzua ematean, zentroko lokaletan, instalazioetan edo erailtzaileengan eragiten dituzten kalteen erantzulea. Enpresako langile guztiek zentroan sartzeko ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte, baita dagoen barne-araudi guztia ere. Gainera, langileek uniformea jantzita edo identifikatuta egon beharko dute beti, beren enpresa argi eta garbi identifikatzeko moduan, Eusko Jaurlaritzako langileekiko nahasmendua saihesteko.

3.4. Prestazioak gauzatzeko lekua.

Administrazioak ezarritako lekuan gauzatuko ditu enpresa kontratistak kontratuaren xede diren prestazioak. Kontratuaren helburu diren prestazioen berezitasuna eta segurtasun-beharrak aintzat hartuz (Telekomunikazioak eta Sistema Informatikoak Kudeatzeko Zuzendaritzak adierazi legez), kontratistak Eusko Jaurlaritzaren instalazioetan eman beharko ditu bere zerbitzuak, bederen, kontrakorik adierazten ez den bitartean; oraingoz Bilboko Ornilla Doktorearen kaleko 1-A zenbakian dagoen Eusko Jaurlaritzaren eraikinean egingo da.

Leku hori aldatuz gero, Administrazioak gutxienez 15 egun balioduneko epean jakinaraziko dio kontratistari.

3.5. Kontratuaren xede diren zereginak garatzeko beharrezko zehaztapenak.

Lanak egiteko behar diren zehaztapenak betetzen direla egiaztatuko da kontratuaren arduradunak zehaztutako aldizkakotasunaren arabera; horretarako, enpresa kontratistak informazio-sistema bat ezarri beharko du, betetzen dela egiaztatzeko behar diren datu guztiak jasoko dituena. Nolanahi ere, kontratuaren arduradunak egoki iritzitako datu, informazio eta argibide guztiak eskatu ahal izango dizkio kontratistari, kontratua betetzen dela bermatzeko. Enpresak egiaztatu eta prestatu behar ditu horri buruzko txostenak, eta enpresak ordaindu beharko ditu sortzen diren gastu guztiak.

Jarraian, ezarritako adierazleak eta kontratistak kasu bakoitzean bete beharreko gutxieneko zehaztapenak aurkezten dira:

1.- Identifikazio-agiria TAIZAko sarrera-erregistroan sartu zenetik identifikazio horretan jasotako datuak grabatu arte igarotako denbora.

Izena: identifikazio-dokumentua TAIZAko sarrera-erregistroan sartu zenetik identifikazio horretan jasotako datuak grabatu arte igarotako denbora.

Deskribapena: identifikazio-datuak grabatu behar ziren egunaren eta benetan grabatzen diren egunaren arteko denbora-desbiderapena neurtzen

du. Gehieneko epea 3 egun baliodunekoa izango da; kontratuaren arduradunak 5 egun baliodunera arte luzatu ahal izango du, kontratistak eskaera arrazoitua egiten badu, bat-bateko edo ezinbesteko inguruabarrak kontuan hartuta, eta eskaerari erantzungo zaio.

NEURTZEKO MODUA:

Formula = Lortutako eguna – Finkatutako eguna.

2.- Digitalizatu beharreko dokumentua TAIZAko sarrera-erregistroan sartzen denetik dokumentua digitalizatu eta katalogatu arte igarotako denbora.

Izena: digitalizatu beharreko dokumentua TAIZAko sarrera-erregistroan sartzen denetik dokumentua digitalizatu eta katalogatu arte igarotako denbora.

Deskribapena: dokumentua digitalizatu behar zen egunaren eta benetan digitalizatzen den egunaren arteko denbora-desbiderapena neurtzen du. Gehieneko epea 3 egun baliodunekoa izango da; kontratuaren arduradunak 5 egun baliodunera arte luzatu ahal izango du, kontratistak eskaera arrazoitua egiten badu, bat-bateko edo ezinbesteko inguruabarrak kontuan hartuta, eta eskaerari erantzungo zaio.

NEURTZEKO MODUA:

Formula = Grabazio-eguna – Digitalizazio-eguna.

3. Grabazioaren kalitatea.

Izena: identifikazioen grabazioaren kalitatea.

Deskribapena: grabazio txarragatik baztertutako espediente guztiak hartzen ditu barne, hilean grabatutako espedienteen %2ko errore maximoarekin.

NEURTZEKO MODUA:

Formula = grabazio txarragatik baztertutakoen kopurua* 100/Grabatuen kopurua.

Aurrekoa gorabehera, kontratistak faseetako edozeinetan antzemandako akatsak zuzendu beharko ditu, eta ahalik eta lasterren zuzenduko ditu. Akatsa antzematen badu, kontratistak berak jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari ahalik eta lasterren, akatsa zuzentzeko betebeharrari kalterik egin gabe.

4.- Salaketa-proposamena *TAIZA* aplikazioan sartzen denetik hura baliozkotu edo baztertu arte igarotako denbora.

Izena: salaketa-proposamena *TAIZA* aplikazioan sartzen denetik hura baliozkotu edo baztertu arte igarotako denbora.

Deskribapena: salaketa-proposamena baliozkotu edo baztertu behar zen egunaren eta benetan egin den egunaren arteko denbora-desbiderapena neurtzen du. Gehieneko epea 3 egun baliodunekoa izango da; kontratuaren arduradunak 5 egun baliodunera arte luzatu ahal izango du, kontratistak eskaera arrazoitua egiten badu, bat-bateko edo ezinbesteko inguruabarrak kontuan hartuta, eta eskaerari erantzungo zaio.

NEURTZEKO MODUA:

Formula = Lortutako eguna – Finkatutako eguna.

Gehieneko epeak lotesleak dira, eta horiek ez betetzeak Administrazio Klausula Berezien Agirian jasotako zigorrak aplikatzea ekarriko du, bai orokorrak, bai espezifikoak. Nolanahi ere, kontratistak gehieneko epeak beteko ez balitu, ahalik eta lasterren bete beharko lituzke berriro, eta zigorrak ezartzeak ez luke betebehar hori salbuetsiko.

3.6. <u>Kontratua gainbegiratzea.</u>

Trafiko Zuzendaritzak gainbegiratuko du enpresa kontratistaren jarduna, eta, horretarako, TAIZAren arduraduna izango da kontratuaren arduraduna, hargatik eragotzi gabe Trafiko Zuzendaritzak beste solaskide batzuk izendatzea.

Enpresa kontratistak erabat bete beharko ditu Administrazioak kontrolerako ezartzen dituen baldintzak. Enpresak, gutxienez, koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatuko du, bere plantillakoa, Administrazio Klausula Partikularren Pleguan ezarritako lanak egiteko.

Jarraipen-bileren egutegi bat ezarri ahal izango da, kontratuaren arduradunaren bitartez. Administrazio kontratatzaileak ezarriko du egutegi horren maiztasuna. Jarraipen-bilera horietan, enpresa lizitatzaileak proiektuaren aurrerapenari buruzko txostenak aurkeztu beharko ditu gutxienez, eta bertan identifikatu beharko ditu proiektua garatzean hautemandako arazoak, bai eta egon daitezkeen alternatibak ere.

Kontratuaren arduradunaren eta enpresak koordinatzaile edo arduradun izendatutako pertsonaren arteko komunikazioetarako, administrazio-klausula partikularren agirian xedatutakoa beteko da.

3.7. Erregistroa eta kontrola.

Eusko Jaurlaritzak, kontratuaren esleitzaile den aldetik, eskubidea izango du kontratatutako zerbitzuaren jarraipena eta kontrola edozein unetan egiteko. Kontrol hori kontratuaren arduradunak edo Eusko Jaurlaritzako beste langile batzuek egingo dute, eta Eusko Jaurlaritzak izendatuko ditu. Halaber, enpresa kontratistak bere solaskideak izendatu beharko ditu. Kontratuaren zati gisa, enpresa kontratistak erabat bete beharko ditu Administrazioak kontrol-arloan ezarritako baldintzak.

Kontratatutako lanen egoera eta garapena ezagutzeko Administrazioak eskatutako informazioa eman beharko du enpresak. Kontratua gauzatzen den bitartean, Administrazioak beretzat gordetzen du prestazioa zuzena dela egiaztatzeko eskubidea, bai eta prestazio hori administrazio-klausulen agirietara, baldintza teknikoen agiri honetara eta enpresak aurkeztutako eskaintzara egokitzen dela egiaztatzekoa ere. Ildo horretatik, agerian jarri diren alderdiak konpondu edo egokitu beharko ditu kontratistak, adierazten zaion epearen barruan.

Preskripzio Teknikoen Agiri honetan jasotako preskripzioak kontratazio publikoari buruzko araudian xedatutakoaren arabera idatzita daude, eta, beraz, interesa duten eragile ekonomiko guztiek dute kontratazio-prozedurara berdintasun-baldintzetan sartzeko aukera, eta ez dute lehia askerako inolako justifikaziorik gabeko oztoporik sortzen.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 21a

2022.04.21
17:03:31 +02'00'

Izpta.: Urtzi Saratxaga Lozano
Trafikoko Arau-hausteak Izapidetzeko Zentro Automatizatuaren arduraduna
Trafiko Zuzendaritza

I. eranskina: Aleko prezioak.

	Kontzeptuak	Aleko prezioak (BEZik gabe)
1.1.a	Irudia baliozkotzea eta, hala badagokio, datuak grabatzea + erregistroetatik datuak ateratzea, hori guztia espediente-zenbaki bati eta bertatik eratorritakoei dagokienez (salaketa automatizatuetarako).	0,65
1.1.b*	Sarrera eta irteerako dokumentuak eskaneatzea + espediente-karpetatxoa irekitzea bere zenbakiekin eta karpetatxoa artxibatzea (salaketa automatizatuetarako).	0,55
1.2*	Sarrera- eta irteera-dokumentuak eskaneatzea + espediente-karpetatxoa irekitzea, zenbakia jarrita eta karpetatxoa artxibatzea (TAIZAk baliozkotutako salaketak).	0,60
2	Irudien tratamendua baliozkotu gabe (irudi bidez).	0,25

*** Nolanahi ere, 1.1.b eta 1.2 kontzeptuak ez dira kontratu honen xede izango, baldin eta kontratua indarrean dagoen bitartean Trafiko Zuzendaritzak bere gain hartzen baditu.**

1.1.a eta 1.1.b kontzeptuen aleko prezio biak batera fakturako dira baliozkotzen den salaketa bakoitzeko eta, arestian adierazi bezala, soilik 1.1.b kontzeptua fakturatzeari utziko zaio (bestearen fakturatzea mantenduz) ataza horiek Trafiko Zuzendaritzak bere gain hartzen baditu.

Aleko prezio horiek gehienekoak dira; ondorioz, horiek gainditzen dituzten eskaintzak baztertu egingo dira.

II. eranskina: informazio-sistemei buruzko segurtasun-arauak.

Enpresa kontratistak honako jokabide-arau hauek betetzeko konpromisoa hartzen du informazio-sistemei dagokienez:

- Ez sartzea Eusko Jaurlaritzaz kanpoko software mikroinformatikorik.
- Fitxategien egitura, haien existentzia edo garatutako aplikazioen funtzionaltasunak edo beren eginkizunak betetzean ezagutzen dituztenak ez zabaltzea.
- Dauden edo aurreikusita dauden segurtasun-sistemak ez zabaltzea eta ez argitaratzea.
- Ez jakinaraztea Eusko Jaurlaritzaren eta haren mendeko erakundeen informazio-sistemetatik lortutako informazioa, ez eta ematen zaion dokumentazioa edo bere eginkizunak betetzean eskura dezakeena ere, edozein euskarritan dagoela ere.
- Agindutako eginkizunak betetzeko behar den informaziorako sarbide esklusiboa.
- Berari esleitutako pasahitza soilik erabiltzea eta kontu handiz jarduteko konpromisoa hartzea, inork ez dezan bere pasahitzaren berri izan. Erabiltzailea eta pasahitza bakarrak edo banakatuak izan daitezke, eta, nolanahi ere, aurrekoa aplikatuko da.

Gainera, enpresa kontratistak honako konpromiso hauek hartuko ditu, segurtasunari dagokionez:

- Eusko Jaurlaritzaren, haren Segurtasun Sailaren edo haren mendeko erakundeen Intranetera konektatutako ekipoak ezingo dira konektatu Eusko Jaurlaritzatik edo Segurtasun Sailetik kanpoko inolako informatika- edo telekomunikazio-sistemetara.
- Beren jardueragatik Sailetik kanpoko zerbitzuekin konexioa behar duten ekipoak edo sistemak isolatuta egon beharko dira, hau da, Sailaren saretik fisikoki eta logikoki bereizita.
- Espresuki debekatuta dago modemak (edo antzekoak) instalatzea Eusko Jaurlaritzaren sareari konektatutako ekipoetan (ordenagailuak, zerbitzariak, etab.), EJIEren sarean nahiz Segurtasun Sailaren sarean.